

Gure berbakunea ikastaldia

Iñaki Gilisasti Fano
Eukene Franco Landa

Bagilaren 29tik garagarriaren 3ra
9:30etatik 13:30etara
Benta auzogunean
Maidagan 53
Andra Mari - Getxo

Informazioa eta izena emotea:
non@ni.eus **652 73 73 06**
www.non.eus



Uribe-Butroi aldeko euskere, Jatabe-Maruri, Gatika, Laukiz, Lemoiz, Gorliz, Urduliz, Barrika, Sopela eta Berango aldean egin izan da sano antzean oraintsura arte. Batu aurreko euskera hau, nekezago entzun ahal izan dogu uri handittten, Plentzian, Leioan edo Getxon esate baterako, zoritxarrez.

Ekain honetako 29tik hasitte, bost egun jarraituz ekingo dotsu barriro **3.Berbakunearen Ikastaldiari**. 9:30etatik 13:30etrara Andra Mariko Benta auzogunean, etxeko euskera zaharraren ahozko erregistro eta ezaugarrikez praktikateko.

Doanekoa dala gogoratu. **Iñaki Gilisasti Fanok** dinamizatuko dauz gaiak eta **Eukene Franco Landaren** parte hartze zuzena izango da bertan. Eukene, Getxon jaiotako (1997) ikertzaile eta Euskal Filologian aditua dogu. Beran ikerketa nagusiak soziolinguistikan, hizkuntza-kontaktun eta euskeren gramatikan zentratzen direz; besteak beste, hiztun komunitateren sorrera eta euskalzahartasunaren garapena Getxon(euskere biziberritu dan eremu), hizkuntza-ideologik (jatortasune eta legitimitate, kasu) eta Boiseko euskal diasporako euskere-aldakortasune eta sortutako identidadek Florida International University-n irakasten deittuz gaur egun, etxera bueltata oportretan badeku bere.

Modu eta gogorik dozun interesatu bet bazara, mezutxu bet bialdu non@ni.eus postara izena emoteko. Beste edozelau argibiderik bere jaso zengi 652 73 73 06 geittute.

Aurtengo udera ganoraz sartzera goz.

Aupa!!